



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



MERKATARITZA MAHAIA / MESA DE COMERCIO

2021eko urtarrilaren 21a

GAI-ZERRENDA:

- 1.- Agurra eta Ekonomia Sustapen Arloko lankide berria aurkeztea.
- 2.-Hartzeke dauden akordioak ikuskatzea; Enpresen Kontsulta Foroa: lehenetsuneko proiektuen zerrenda 2020.
- 3.- Egungo sektorearen egoera aztertzea.
- 4.- 2021eko jarduketa-proposamena.
- 5.- Hurrengo urratsak.
- 6.- Galderak eta iradokizunak.

PARTAIDEAK: (% 91)

DEITUTAKOAK		PARTAIDEAK	EZ-EGOTEAK	
			Arrazoa emanda	Arrazoa eman gabe
Algorta-Andra Mariko ordez.	Jokin Aresti (IÑAKI BITXITEGIA)	X		
Algorta-Andra Mariko ordez.	Jose Luis Antona (BARATZE FRUTA-DENDA)			X
P. Zahar, Kirol P. eta Neguriko ordez.	Kimetz Garate (ZURIKALDAI NEGURI)	X		
Romoko ordez.	Maite Sesumaga (MAITESKULANAK)	X		
Areetako ordez.	Sara Mata (COLORES)	X		
Areetako ordez.	Itxaso Zelaia (JUAN MARI HARATEGIA)	X		
Algortako Dendak	Amaia Sertutxa	X		
Getxo Enpresa	Elena Cantera	X		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Sonia Urdiain	X		



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

1.- Agurra eta Ekonomia Sustapen Arloko lankide berria, Sara de la Fuente, aurkeztea.

2.-Hartzeke dauden akordioak ikuskatzea; Enpresen Kontsulta Foroa: lehenetsuneko proiektuen zerrenda 2020.

2.1.- **Gabonetako eta Getxo Bono 2020ko kanpainak** berriz planteatzea. 2020. urtean gauzatu dira. Itxiak egon bezain laster memoriak bidaliko dira.

Jakinarazitakoaren arabera, erosi ondoren trukatu ez ziren 2020ko bonuak itzuliko dira eta modurik eraginkorrena zein den aztertu da.

2.2.- **Getxo Moda 2021** aztertzea.

Ekitaldiak udalerrian agerpen handiagoa izateko eskatu zen. Halaber, partaidetza gehiago lortu nahi zen, bai herritarren aldetik, baita udalerriko merkataritzaren aldetik ere. Jaso da Getxo Enpresak 2021. urterako egindako proposamena.

Getxo Enpresak eta Ekonomia Sustapen Arloak proiektua zehatz-mehatz azaldu ostean, urtarrilaren 25etik 29ra bitarteko astean Romo Bizirik eta Algortako Dendak erakundeekin bilera bat egitea erabaki da, hurrengo astean ekarpen eta iradokizunak egiteko.

2.3.- **Getxo Bono 2021eko** kudeaketa eredu berria aztertzea. Kudeaketa ereduak aztertzen ari dira eta aurki proposamenak aurkeztuko dira. Ildo horri eutsiz, hasieran tokiko administrazioaren berezko aplikazioa izatea aurrez ikusten da.

Partida ekonomikoa: aurreko urteko kopuruaren ildotik (400.000 €), eta, ahal bada, gehikuntzarekin (500.000 €arte). Enpresa berriak sartzten dira kanpainara; akademiak, aisialdiko enpresak, taxiak, osasuna, gimnasioak, etab. (COVID egoerak gehien eragiten dien enpresak).

Enpresa partaideak: onuradun gisa sartuko lirateke ikastegiak, gimnasioak, ostatuak, taxien zerbitzuak... Nolanahi ere, enpresa horiek ere pandemiaren ondoriozko egoera modu garrantzitsuan jasan dute.

2.4.- **Lanbideren** laguntzen deialdia: lanaldi erdian kontratatzeko laguntzak jasotzeko aukera. 2020ko deialdiari erantsi zaio. Gogorazi da otsailaren 8ra arte laguntzak lortzeko eskaerak aurkez daitezkeela. Eusko Jaurlaritzaren laguntza dela jakitun izan arren, beste mahai batzuetan bezala, azpimarratu dute deialdia lehenago egin beharko litzatekeela (antolatuta ahal izateko), eta ez atzeraeraginezko izaerarekin urtearen amaieran.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

- 2.5.- Udalerriko merkataritza-establezimenduak **digitalizatzeko eta Googleen kokatzeko kanpaina eta tokiko kontsumoari buruzko sentsibilizazio-kanpaina**. Tokiko kontsumoa sustatzeko, ikusarazteko eta sentsibilizatzeko kanpainaren barruan aurreikusita dago. Tokiko kontsumoari buruzko komunikazio-estrategia bat diseinatzea (2021. urtea), COVID kodeak gehien eragiten dien sektoreentzat, hura zabaltzeko bitartekoak, euskarriak eta tresnak kontratatzea, bai eta haren eraginaren jarraipena egitea ere (teknikoki, 60.000 euroko aparteko partida eskatzen da).
 - 2.6.- **Gainzako** parkinga irekitzea, eta udalerriko beste leku batzuetan (San Nikolas, Santa Eugenia...) dauden aparkalekuak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzea.
Gainzako parkinga 2020ko abenduan ireki zen. Gainerako baliabideak aztertu eta txostena egitearen zain daude.
 - 2.7.- Erosketen truke **TAOn hobaria lortzeko** aukera. Aurrekontuaren eta aztertzearen zain.
 - 2.8.- **Getxo Bono 2020** komunikazio eta sustapen **kanpaina indartzea**; kanpaina erabat kontsumitzeko baldintzak aldatzea. Komunikazio kanpaina indartu da eta proposatutako aldatetarako egin dira. Memoria ixtear dago, eta orduan partekatuko da.
 - 2.9.- **Merkataritza kaleak: mantentze-lanak, argiak eta garbiketa..**
Iritsi zaizkigun eske guztiak kudeatu ditugu. Zona batzuetan oraindik arratoien arazoak jarraitzen du. Ekonomia Sustapen Arloak gonbita luzatzen du eske guztiak hurrengo helbide honetara helarazteko: ingurugiroa@getxo.eus // getxolan@getxo.eus
 - 2.10.-**Mugikortasun** jasagarria (GetxoBizi otzarekin + GetxoBus + Hobariak garraio publikoa erabiltzeko). Egiteke.
- 3.- Egungo sektorearen egoera aztertzea.
Azaldutakoaren arabera, sektorea fakturazioan % 30 eta % 40 arteko murrizketa jasaten ari da, baina oraingoz eustea lortu du.
 - 4.- 2021eko jarduketa-proposamena.
 - 4.1.- **Saldoen merkatua.**
Merkataritza lokaletan antolatu ahal izatea. Beren ustez laguntza bat da Gabonetako kanpaina ixteko eta une honetan halabeharrezko bihurtu da. Iraupena astebete, otsailaren azkeneko astera arte, luzatzea komeni da jende-pilaketak saihesteko. Dena den, orain arte, merkataritza-lokaletan edukieraren kudeaketak eta ilarek udalerrian ez dute intzidentziarik sortu.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

4.2.- **Getxo Bono 2021.** Kudeaketa ereduak ondorengo hauek aurrez ikusi behar ditu:

- Kanpainaren iraupena: abiarazten denetik (martxoan izan liteke) bonuak amaitzen direnera arte.
- Bonuen zenbatekoak: 20 eta 40 euroko bonuak eta egungo hobariak mantentzea.
- Adinekoentzako eskuragarria.
- Establezimenduei azkar ordaintzea.
- Izapideak errazak izatea.
- Ereduari esker, baliozkotu eta ordaintzeko orduan, barneko kudeaketa gutxienekoa izatea.
- Kanpainaren irismena: nagusiki, Bilbo Handian eta Uribe Kostan zabaltzea.
- Nork aterako du Getxo Bonoa: merkatariak edo azken bezeroak? Agertoki mistoaren aldeko apustua egin da, eta adinekoen beharrei erreparatu, ez dute hain digitalak izan behar.

4.3.- **Getxo Moda 2021.**

Guztiak ados daude orain arte ekitaldi elitista eta itxia zela. Halaber, beren ustez, diseinatzaileen aldea oso ondo planteatuta dago eta udalerraren marka ekitaldi gisa oihartzuna du, baina merkataritza-establezimendu gutxi parte hartzen dutela pentsatzen da.

Mahaikideen artean proiektua partekatzeko aukera eman da, Getxo Enpresak eta Ekonomia Sustapen Atalak hori zehatz-mehatz azaldu ostean (urtarrilaren 25etik 29ra bitarteko astea).

Ondoren, Romo Bizirik eta Algortako Dendak erakundeekin bilera egingo da.

Hasieran proposamenak ekitaldia maiatzean egitea aurrez ikusten du, baina, ziurrenik, udaren osterako atzeratu beharko da.

4.4.- Tokian kontsumitzeko **sustapen**, ikuspen eta sentsibilizazio **kanpaina**: 60.000 euro. Hala badagokio, 2021ean aurrekontua handitzea onartzeke.

4.5.- **Gabonetako argiak 2021.**

Gabonetako argiztapen orokorra urria den tokietan merkataritza-establezimenduetako fatxadetan zuhaitzen kopurua gehitzeko aukera proposatu da. Izan ere, ekimen hori 2020. urtean Romon egin da, Romo Bizirik erakundeari esker, eta merkatariak nahiz herritarrek harrera ona eman diote.

5.- Hurrengo urratsak.

- ✓ Enpresen Kontsulta Foroa (2021/2/2)
- ✓ Kontrasteko Mahai Politikoa (2021/2/15)



6.- Galderak eta iradokizunak:

6.1.- Bileran landu gabeko puntua: Ordezkeriak aldatzea.

Algorta-Andra Mariren ordezkeri gisa Jose Luis Antona (Baratze frutadenda) hautagaiaren baja jakinarazi digute. Botoak zenbatu ziren akta ikuskatu ondoren, boto-kopuru gehienak lortu zituen hurrengo hautagaia Oriente Enriquez (Lindau ehun-denda) izan zen. Berarekin harremanetan jarriko gara, hurrengo mahaietan parte hartzen hasteko.

MERKATARITZA MAHAIAREN AKORDIOAK (2021-01-21)

	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea.	Udal teknikariak	2021-01-29
2. Gabonetako Kanpaina eta Getxo Bono 2020: memoriak bidaltzea.	Mirene	2021-01-29
3. Getxo Moda 2021 proiektua aztertzeke bilera-deialdiak egitea.	Mirene	2021-01-27
4. Getxo Bono: mahaiari proposamen berria helaraztea. Mahaiak proposatu dituen kudeaketa ezaugarri eta baldintza guztiei hobe egokitzeko eredu.	Mirene	2021-02-05
5. Sustapen, sentsibilizazio eta ikuspen kanpainarako ohiz kanpoko partida gehitzen den jakinaraztea.	Mirene	Aurrekontuak onartzearen arabera.
6. Sustapen, sentsibilizazio eta ikuspen kanpainaren zirriborroa aurkeztea.	Udal teknikariak	Otsailaren bigarren hamabostaldia.
7. TAOren hobaria kudeatzeko eredu aztertu eta proposatzea. Aurrekontuen eta, gerora, azertzearen zain.	Mirene	Aurrekontuak onartzearen arabera.
8. Hurrengo Gabonetako kanpainan zuzaitzen kopurua gehitzeko aukera arlo arduradunari helaraztea.	Mirene	2021-01-29
9. Enpresek kontratazioak planifikatzen, urtearen hasieran kontratazioarako laguntzen deialdia egitearen garrantzia Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea.	Mirene/Ainhoa	2021-01-29
10. Merkataritza bideetan gorabeheren buruzko komunikazioak (garbiketa, arratoiak...) arlo egokiei bidaltzea.	Dendak	Bileratik aurrera



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

11. Saldoen merkatua egiteko aukera balioztatzea.	Mirene	2021-01-29
---	--------	------------